

FORMAKUNTZA

GAIA

**TAILERRA: "ZEIN HARRO NAGOEN NIRE PRODUKTUAZ!"
ITERA-AA programako prestakuntza-saio berria**

DATA: 2014ko martxoaren 25a

TOKIA: Doneztebe

EMAILEA: CEDERNA GARALUR Elkarte



"Zein harro nagoen nire produktuaz!"



Prestakuntza-ekintza: Motibaziorako tailerra ITERA-AA proiektuaren barnean.

Prestakuntzaren helburuak:

- Nire produktuak niretzat duen balioa identifikatzea.
- Zer sentipen dut nire produktuaz hitz egin, horretaz pentsatu eta deskribatzen dudanean.
- Nola helarazten diedan nire bezeroei zer sentitzen dudan nire produktua lantzen dudanean.

Non: Juansenea. Oteiza auzoa, 5. Doneztebe.

Ordutegia: 14:30etik 17:00etara bitartean.

Publiko xedea: Nafarroako Mendialdeko nekazaritzako elikagaien ekoizleentzat.

Nork emana: María Olarte, Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna, pedagogia espezialitatean. Didaktika-metodologian eta hezitzaileen prestakuntzan aditua, Consult-Group.

Izen-emateak: info@cederna.es, tel 948 206697 / 626 5419 33

"ITERA-AA, Landa Berrikuntza eta Elikadura" izeneko proiektuan (Interreg IVB SUDOE programak finantzatua) Europako sei bazkideak hartzen dute

parte: Nafarroa sare horren barnean dago CEDERNA GARALUR Elkartearen bidez, eta honako erakundeekin dihardu lankidetzan: Frantziako Correzeko kontseilu nagusiarekin eta Figeac sindikatu mistoarekin; Portugalgo Adreveko garapen-agentziarekin; eta Espainiako Granadako Diputazioarekin eta Sergalekin.

Itera AA proiektuaren helburu orokorrak dira:

- Nekazaritzako ekoizleek lurraldeetan duten balio erantsia babestea, eta merkatura bideratuko diren 'bestelako' produktuak lantzea.
- Eskaintza eta eskaera lurraldera hurbiltzea.
- Enpresen premiak abiapuntu hartuta, prestakuntzak eta akonpainamenduak egin, premia horiei erantzuteko eta horietara heltzeko.

INFORMAZIO +

 <p>ITERA.AA INNOVACIÓN RURAL Y ALIMENTACIÓN</p>  <p>SUDOE Interreg IV B</p>  <p>UE/EU - FEDER/ERDF</p>	<p>Kontxi Sansiñena Jauregi CEDERNA GARALUR</p> <p>Telefonoa: 626 541 933 Posta elektronikoa: proyectos@cederna.es</p>
---	--